

ITELAZPI, SAREN KONTSEILARIAREN ESTATUTUA



DOKUMENTUAREN KONTROLA

Parte-hartzaileak

Ataza	Izena	Kargua
Onetsi duena:	Administrazio-kontseilua	

Memoria

Berriku spena	Data	Aurreko berrikuspenarekiko aldaketa
01	2018/12/19	Estatutua onartzea



AURKIBIDEA

I. KAPITULUA. APLIKAZIO-ESPARRUA	4
1. artikulua. Definizioa.....	4
2. artikulua. Onespena eta aldaketak	4
3. artikulua. Publizitatea	4
II. KAPITULUA. KONTSEILARIAREN BETEBEHARRAK ETA MUGAK.....	4
4. artikulua. Kontseilariaren betebeharrak	4
5. artikulua. Konfidentzialtasun-betebeharra	5
6. artikulua. Gardentasun- eta informazio-betebeharra	5
7. artikulua. Interes-gatazkak	5
8. artikulua. Izenaren edo Sozietate-aktiboen erabilera	6
9. artikulua. Negozio-aukerak	7
III. KAPITULUA. KONTSEILARIAREN ESKUBIDEAK ETA AHALMENAK.....	7
10. artikulua. Informazio- eta ikuskapen-ahalmena	7
11. artikulua. Adituen laguntza	7
12. artikulua. Kontseilarien ordainketa.....	8
13. artikulua. Kontseilarien erantzukizuna.....	8
IV. KAPITULUA. ESTATUTUA BETETZEA	8
14. artikulua. Kontseilariak betebeharrak ez betetzea	8
15. artikulua. Betetzearen ebaluazioa	9
16. artikulua. Urteko txostena.....	9



I. KAPITULUA. APLIKAZIO-ESPARRUA

1. artikulua. Definizioa

Estatutu hau ITELAZPIren Korporazio-gobernuko Sistemaren parte da eta kontseilariak bere karguan dituzten eskubideak eta betebeharrak definitzen ditu. Gainera, Estatutuak kontseilari guztiak lotzen ditu eta, horregatik, beren-beregi adierazi beharko dute Estatutura atxikitzen direla, zehazki, kargua hartu aurretik.

Estatutu hau bete beharko dute sozietatearen Korporazio-gobernuko Sistema osatzen duten bestelako arauetan eta, bereziki, Administrazio-kontseiluaren Arautegian eta Kode Etikoan xedatutakoa gorabehera.

2. artikulua. Onespena eta aldaketak

Administrazio-kontseiluak onetsiko du Estatutu hau, baita horren etorkizuneko aldaketak ere.

3. artikulua. Publizitatea

Kontseilariaren Estatutua Gardentasun Atarian eta Akziodunaren Estranetean argitaratuko da.

II. KAPITULUA. KONTSEILARIAREN BETEBEHARRAK ETA MUGAK

4. artikulua. Kontseilariaren betebeharrak orokorrak

Kontseilariak gobernu, kudeaketa eta ordezkartzako eginkizunak burutu beharko ditu konpainiaren gizarte-interesa lortzeko. Bere eginkizunak burutzean, kontseilariak beharrezko eginbidearekin jardun beharko du interes hori lortzeko, baita sozietatearekiko leialtasun-betebeharra zorrotz errespetatuz ere. Bereziki, honetara behartuta egongo da:

1. Administrazio-kontseiluaren bileretara joatera. Izan ere, joratu beharreko gaiak behar bezala prestatu beharko ditu eta aktiboki parte hartuko du deliberazioetan, bere irizpideak modu eraginkorrean lagun dezan erabakiak hartzean.
2. Bereziki haientzat diseinatutako sozietatearen harrera- eta prestakuntza-programetan parte hartzeraz, bere eginkizunak eskumenez egikaritzeko ezagutza-maila egokia bermatze aldera.
3. Sozietatearen administrazioak proposatzen dituen kontuak aldizka jarraitzeko beharrezko denbora eta esfortzuak eskaintzera, horretarako informazio nahikoa bilduz.
4. Administrazio-kontseiluak agintzen dion edozein eginkizun zehatz burutzera, baldin eta bere arduraldi-konpromisoaren barruan sartzen bada modu zentzudun batean.



5. Administrazio-kontseiluari jakinaraztera sozietatearen kudeaketarekin lotuta ezagutzera ematen zaion edozein irregulartasun, baita edozein arrisku-egoera zaintzera ere.
6. Oro har, legeek, estatutuek eta Korporazio-gobernuko Sistemaren arauak ezarritako betebeharrak betetzera sozietatearekiko leialtasunez. Halaber, legearen, Estatutu Sozialen edo gizarte-interesaren aurkako erabakiak ukatu beharko ditu eta eskatu ahalko du aktan agerrarazteko bere ukapena, hori denean egokiena interesa zaintze aldera.

5. artikulua. Konfidentzialtasun-betebeharra

Kontseilariak Administrazio-kontseiluaren eta, hala badagokio, horren batzordeen deliberazioen gaineko sekretua gordeko du. Horrez gain, orokorrean, bere karguan eskuratu dituen eta publikoak ez diren informazioak emateaz abstenituko da. Konfidentzialtasun-betebeharra mantenduko da nahiz eta kargua utzi.

6. artikulua. Gardentasun- eta informazio-betebeharra

Kontseilarien betebeharra da sozietateari aldizka ematea informazioa bere erabakiak hartzeko prozesuan eragin dezaketen interes partikularren edo egoera pertsonalen inguruan, baita kargua uzteko arrazoia izan daitezkeen horien inguruan ere. Zehazki:

1. Sozietateari jakinarazi beharko dizkiote sozietatearen gizarte-xedea den jarduera-mota berarekin, antzekoarekin edo osagarriarekin beste sozietate batzuen kapitalean dituzten partaidetza guztiak, baita horietan dituzten karguak edo eginkizunak ere. Gainera, sozietateari jakinarazi beharko dizkiote sozietatearen gizarte-xedea den jarduera-mota berarekin, antzekoarekin edo osagarriarekin burutzen dituzten bestelako jarduerak, norberaren edo besteren kontura burutzen dituzten gorabehera.
2. Sozietateari jakinarazi beharko dizkiote bere egoera profesionalean gertatzen diren aldaketak, kontseilari izendatzeko oinarritzat hartutako izaerari edo baldintzari eragiten diotenak edo interes-gatazkak eragin ditzaketenak.
3. Sozietateari jakinarazi beharko diote inplikatura dauden edozein motako erreklamazio judizial, administrazio-erreklamazio edo bestelako erreklamazio, baldin eta duen garrantziagatik sozietatearen izen-onari kalte egin ahal badio. Horrez gain, ondorengo zenbakian zerrendatzen den edozein egoeraren berri eman beharko diote.

7. artikulua. Interes-gatazkak

1. Interes-gatazka egongo da, kontseilariaren interesak, bai norberaren konturakoak, bai besteren konturakoak, zuzenean edo zeharka talka egiten dutenean sozietatearen interesarekin edota sozietatearekiko duten betebeharrekin.



2. Kontseilariaren interesa egongo da gaiak zuzenean berari edo berarekin lotutako beste pertsona bati eragiten dionean. Ondorio horietarako, lotutako pertsonak izango dira Kapital-sozietateen Legearen Testu Bateginaren 231. artikuluan ezarritakoak.
3. Kontseilariak beharrezko neurriak hartu beharko dituzte, legean ezarritakoaren arabera, interes-gatazkako egoeretan erortzea saihesteko. Zehazki:
 - a. Pertsonalki interesatzen zaizkien gaiekin lotutako deliberazioetara joateaz eta horietan esku hartzeaz abstenitu beharko dira, gaiek zuzenean edo lotutako pertsona baten bidez eragiten dieten gorabehera.
 - b. Ezingo dituzte zerbitzu profesionalak edo komertzialak emateko transakzioak zuzenean edo zeharka egin sozietatearekin, aurretiaz interes-gatazkaren berri ematen bada eta kontseiluak transakzio hori onesten badu izan ezik.
 - c. Kontseilariak presidenteari jakinarazi beharko dio edozein abusu edo ez-betetze, bereziki, hori informazio nabarmenaren edo pribilegiatuaren kudeaketarekin lotuta badago.
4. Interes-gatazkako egoera baten aurrean, honako jarduketa-arauak aplikatuko dira:
 - a. **Komunikazioa:** kontseilariak Administrazio-kontseiluari jakinarazi beharko dio, bai presidentearen bidez, bai idazkariaren bidez, interes-gatazkako edozein egoera, erreal edo balizkoa eta norberarena edo beste batena den gorabehera.
 - b. **Abstentzioa:** kontseilaria bileratik joan beharko da interes-gatazkako egoeran jartzen duten gaien deliberazioan eta bozketan. Horrela, hori kenduko da bertaratutako kideen kopurutik, quoruma eta gehiengoak zenbatzearen ondorioetarako.
 - c. **Gardentasuna:** kontseilariak Administrazio-kontseiluari jakinarazi beharko diote edozein bitartekoaren bidez jakinarazten zaien beste kontseilarien edozein interes-gatazkako egoera.
 - d. **Ebazpena:** Interes-gatazkak egiturazko eta etengabeko gatazka-egoera bat sortzen duenean edo gerta daitekeenean horrelako egoera bat sortzea, joko da kontseilariak ez duela eskatutako egokitasunik edo egokitasun hori edukitzeari utzi diola kargua jarduteko eta, horrela, kargua uzteko arrazoi bat egongo da. Hala, kargu-uzte hori Batzar Nagusiari proposatu beharko zaio.

8. artikulua. Izenaren edo Sozietate-aktiboen erabilera

Kontseilariak ezingo du sozietatearen izena erabili, ezta horren administratzaile-izaera baliatu ere, bere konturako operazioak egiteko edo berarekin lotutako pertsonen operazioak egiteko. Horrez gain, ezingo ditu sozietatearen aktiboak erabili, merkatu-kontraprestazio bat ordaindu badu eta estandarizatutako zerbitzu bat bada izan ezik.



9. artikulua. Negozio-aukerak

1. Kontseilariak ezin du sozietatearen negozio-aukera bat baliatu bere onurarako edo berarekin lotutako beste pertsona baten onurarako; salbuespen gisa, hori egin ahalko du negozio-aukera aurretiaz sozietateari eskaintzen badio, horrek ustiatzeari uko egiten badio eta aprobetxamendua Administrazio-kontseiluak berak baimentzen badu.
2. Aurreko atalaren ondorioetarako, negozio-aukeratzat hartzen da inbertsio bat edo operazio komertzial bat egiteko edozein aukera, kontseilari-kargua gauzatzearen ondorioz edo sozietatearen bitartekoak eta informazioa baliatuz sortutakoa edo aurkitutakoa. Gerta daiteke aukera hori egoera zehatz batzuetan sortzea eta zentzuduna izatea pentsatzea hirugarrenak egindako eskaintza hori benetan sozietateari zuzenduta zegoela.

III. KAPITULUA. KONTSEILARIAREN ESKUBIDEAK ETA AHALMENAK

10. artikulua. Informazio- eta ikuskapen-ahalmena

1. Kontseilariak ahalmenik zabalenak ditu sozietatearen edozein alderdiren inguruko informazioa izateko eta bere liburuak, erregistroak, dokumentuak eta operazio sozialen gainerako aurrekariak aztertzeko, baita horren instalazioak ikuskatzeko ere.
2. Sozietatearen ohiko kudeaketa ez asaldatzeko, informazio-ahalmenak Administrazio-kontseiluaren presidentziaren bidez bideratuko dira. Horrek kontseilariaren eskaerak kudeatuko ditu eta zuzenean emango dio eskatutako informazioa; horrez gain, antolakuntzaren estratuko hizketakide egokiak eskainiko dizkio edo beharrezko neurriak ezarriko ditu "in situ" praktikatu ahal izateko nahi dituen azterketa- eta ikuskapen-izapideak.
3. Kontseilariak harrera-plan bat eskatu ahalko du, izendapen berrien kasuan, eta Administrazio-kontseiluko kideentzat bereziki diseinatutako prestakuntza-ekintzetara joateko ere bai, hain zuzen ere, sozietatearen gaineko ezagutzak eskuratzeko eta horiek eguneratzeko eta bere eginkizunak behar bezala betetze aldera.
4. Sozietateak kontseilariari zuzendutako estranet bat mantenduko du; bertan, gizarte-ekintzako dokumentaziorik garrantzitsuena argitaratuko da eta, bereziki, Administrazio-kontseiluaren saioetan jorratuko diren gaien inguruko informazioa jasotzen duten dokumentuak.

11. artikulua. Adituen laguntza

Bere eginkizunak burutzean laguntza jasotze aldera, edozein kontseilariak kontratatu edo eskatu ahalko du bileretara aholkulariak joateko, lege-, kontabilitate- edo finantza-aholkulariak, baita bestelako adituak joateko ere.



Mandatua kargua gauzatzean sortutako nolabaiteko garrantzia eta konplexutasuneko arazoekin lotutakoa izan behar da. Kontratazio-eskaera presidenteari jakinaraziko zaio eta horrek Administrazio-kontseiluaren aurretiazko baimenaren menpe jar dezake. Halaber, kontseiluak hori uka dezake horretarako kausak daudenean, honako egoerak barne:

- o Beharrezkoa ez denean agindutako eginkizunak modu egokian garatzeko.
- o Kostua gehiegizkoa denean arazoaren garrantzia ikusita.
- o Eskatutako laguntza teknikoa sozietate bereko langile adituek eta teknikoek eman dezaketenean.

12. artikulua. Kontseilarien ordainketa

Oro har, kontseilariak ez dute ordainsaririk jasoko bere karguagatik eta inguruabarrek edo kasu zehatz batek (kontseilari independenteak) aurkakoa gomendatuko balute, hala badagokio, Batzar Nagusiak zehaztuko du horiek kobratu beharreko ordainsaria.

13. artikulua. Kontseilarien erantzukizuna

1. Kontseilariak sozietatearen, bazkideen eta gizarte-hartzekodunen aurrean erantzun beharko dute legearen edo estatutuen aurkako egintzek edo omisioek eragindako kalteagatik edo kargua gauzatzeari datxezkion betebeharrak ez betetzearen ondorioz eragindako kalteengatik, betiere atzipea edo errua dagoenean eta Kapital-sozietateen Legean ezarritako terminoetan eta irismenarekin.

2. Sozietateak erantzukizun zibileko estaldura duen aseguru-poliza bat kontratatuko du kontseilari guztientzat, enpresaren kontura eta kargura, alegia.

IV. KAPITULUA. ESTATUTUA BETETZEA

14. artikulua. Kontseilariak betebeharrak ez betetzea

Kontseilariak bere betebeharrak betetzen ez dituztenean, bere kargua jarriko dute Batzar Nagusiaren esku.

Hori gorabehera, Administrazio-kontseiluak, gerta daitezkeen ez-betetzeen larritasuna edota errepikapena kontuan hartuz, ukitutako kontseilariaren ohartarazpen formala onetsiko du kontseiluaren arautegiak araututako baldintzetan. Horrez gain, ahalmena dauka Akziodunen Batzarrari proposatzeko kontseilariaren kargu-uztea, sor litezkeen erantzukizunak gorabehera.

Era berean, ondorengo kasuetan, Administrazio-kontseiluak ukitutako kontseilariari eskatu ahalko die dimisioa aurkezteko:

- a. Estatutuetan edo legez aurreikusitako bateraezintasuneko edo lege-debekuko kasuren batean daudenean, interes-gatazkak barne hartuta.



- b. Kontseiluko kide izendatzeko oinarritzat hartutako baldintzan eragiten duten aldaketak ematen direnean bere egoera profesionalean.
- c. Horien aurka auzipetze-auto bat edo ahozko epaiketa irekitzeko auto bat ematen denean, dagokionaren arabera, ustez legean sailkatutako edozein delituzko egitate burutzeagatik.
- d. Horien aurka zehapen larriak edo oso larriak ezartzea eragiten duen administrazio-ebazpen bat ematen denean, administrazio-izaerako arau-hausteak egitearen ondorioz (barne hartuta, muga-izaerarik gabe, zerga- eta lan-eremuko arau-hausteak), betiere ebazpen horrek amaiera ematen badio administrazio-bideari.
- e. Kontseiluan jarraitzeak sozietatearen interesak arriskuan jarri ahal dituen edo kontseiluko kide izateko beharrezko zintzotasun komertziala eta profesionala galduko balute.
- f. Administrazio-kontseiluak ohartarazpen larria jartzen dienean kontseiluko kide gisa duten betebeharren edota eginkizun etikoren bat urratu izanagatik, zehazki, kontseilarien bi herenen gehiengoak hartutako akordioaren bidez.

15. artikulua. Betetzearen ebaluazioa

Kontseilariaren Estatutuaren betetzea ikuskatu egingo da urtero Korporazio-gobernuko Sisteman ezarritako prozedurari jarraiki eta ikuskapenaren emaitzak jasoko dira horren Urteko Txostenean.

Ebaluazio-betebeharra betetzea presidentziaren erantzukizuna izango da eta kontseiluaren idazkariak egikaritu egingo du ebaluazioa. Ebaluazio hori burutzeko, eranskinetan horretarako aurreikusitako dokumentuez gain, kanpoko kontsultoreen babesa izan daiteke, baita kasu bakoitzean egoki deritzen barne-bitarkoena (inkestak edo galdetegiak) ere.

16. artikulua. Urteko txostena

Korporazio-gobernuko Txostenaren parte gisa, aurreko artikuluan aipatutako ikuskapenaren emaitza gehituko da eta, horren arabera, Administrazio-kontseiluaren Estatutuaren betetzearen balioztapen orokorra.